

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI,

OSOKO BILKURARAKO PREMIAZKO INTERPELAZIO ZUZENA, MARTUTENeko ARANTZAZUKO AMA IKASTOLAN IZANDAKO ISTRIPUA DELA ETA,

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniegok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 97. artikulua ematen dion aukera baliatuz, OSOKO BILKURAN PRESAZ AZTERTZEKO INTERPELAZIO ZUZEN hau aurkeztu dio Eneko Goia Laso alkate jaunari, MARTUTENeko ARANTZAZUKO AMA IKASTOLAN IZANDAKO ISTRIPUA dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilaren 24an 13:10ak inguruan Martuteneko norabidean zihoan auto bateko gidariak kontrola galdu zuen eta Arantzazuko Ama ikastolaren hesiaren kontra joan zen.

Kolpeak ez zuen inor zauritu, eta ibilgailua ikastetxeko jolastokiko hesian sartuta geratu zen, sarrera nagusitik metro gutxira.

Azken istripu honek Martuteneko bizilagunen eta Arantzazuko Ama ikastolako komunitatearen kezka areagotu du. Hortaz, Arantzazuko Ama ikastolako guraso elkarteak idatzi bat plazaratu du eta Donostiako Udalari neurriak hartzeko eskatu dio.

Guraso elkarteak aspaldi egindako eskaera da. Jakina baita Arantzazuko Ama errepidez inguratutik dagoela lau alboetatik, horrek dakarren arriskuaz. Eraikinaren aurrealde osoa zeharkatzen duen errepide nagusia (Martutene pasealekua, Donostia Astigarragarekin eta Hernanirekin lotzen duen errepide zaharra) bihurgune handi baten ondoren hasten den zuzengunea da. Horren ondorioz, zentroko sarrerak eta irteerak ez dira seguruak eta Udalari maiz eskatu diote segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea, hala nola, bihurgunearen ondoren eskola-ingurunean sartzeko dela

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

adierazten duen seinale egokia eta abiadura-murrizketa egokia. Baita espaloia eta errepidea bereizten dituen hesi bat ere.

Guraso elkarteak salatu du bere proposamenak ukatu besterik ez duela egin Udal Gobernuak, beren irizpidearen arabera teknikoki eta/edo ekonomikoki bideragarriak diren alternatibak aurkeztu gabe. Baina argi geratu da Arantzazuko Ama ikastetxearen ingurunean arriskua dagoela eta orain arte hartutako gutxieneko neurriak ez direla nahikoa izan.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

INTERPELAZIOA

- Zer dela-eta ez ditu Udal Gobernuak Arantzazuko Ama ikastolaren inguruan bestelako neurriak hartu orain arteko arriskuak saihesteko eta aste honetan izandako istripuaren antzekorik ez gertatzeko?

Donostia, 2022ko urtarrilaren 26an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia